



# “PRINTZE TXIKIA”

UNITATE DIDAKTIKOA

**GAIA:** PRINTZE TXIKIA

**ADINA:** 8-12 urte



# SARRERA

Printze Txikiaren obra helduen eta haurren adimenaren arteko ezberdintasuna aztertzen duen metafora da.

Heldutasunerako bidean, inguratzen gaituen mundua ezagutzeko eta heldua izateak duen erantzukizuna jasateko, ez ditugu alde batera utzi behar haurtzaroko hainbat ezaugarri: irudimena, sormen ahalmena, eskuzabaltasuna...

Obra honek, gainera, beste hainbat gai ere lantzen ditu: adiskidetasuna, denboraren izaera, gauza txikien balioa, harrokeriaren kritika, bakardadea, autoritatea...

Printze Txikiko esaldi esanguratsuenetako bat hurrengoa da: “funtsezkoena begietara ikusezina da”. Askotan, oinarrizko gauzak jakintzat ematen ditugu eta lorpen handietan bakarrik zentratzen gara; lorpen handi horiek erdiesteko, egunerokotasuneko gauza txikiak beharrezkoak direla konturatu gabe. Liluratzen gaituen gauza handiak ez ziren posible izango gauza txikiak egon ezik.

# HELBURUAK

Umezarotik heldutasunerako bidean, aldaketa asko gertatzen dira, eta helduen munduko kontzeptu berriak barneratzen ditugu.

Helburu orokorrak:

- Ume eta helduen munduen arteko ezberdintasunak ezagutzea.
- Umeen ezaugarriak eta helduen ezaugarriak lantzea.
- Eztabaidaren bitartez, ahozkotasuna, argumentuen lanketa eta tresnak lantzea.
- Irudimena lantzea.
- Adiskidetasunaren kontzeptua lantzea eta baloratzea.

# JARDUERAK

## 1. IPUINA

### “Printze Txikia” ipuina

“Printze Txikia” ipuina Antoine de Saint-Exupéry idazlearen lana da, eta euskaraz argitaratuta dago Txertoa, Elkar eta Susaeta argitaletxeetan.

### Ipuina landu

“Printze Txikia” irakurri ondoren, ikasgelan landuko dugu denon artean.

Lehenengo ipuinaren ingurukoak komentatuko ditugu: zalantzak, gauza interesgarriak, harritu gaituenak...

Ondoren, ipuinarekin lotutako ariketatxoak egingo ditugu (*1.eranskina*).

### Horma-irudia

Ipuinetik ateratako ideietan oinarrituta, horma-irudia egingo dugu denon artean: munduak, pertsonaiak, adierazten diren objektuak, esaldi esangutsuak...

## 2. ROLE PLAYING-A

### Ikasleak taldekatu

Ikasleak taldeka jarriko ditugu role playing ariketa egiteko. 6 mundu aukeratu ditugunez, 6 taldetan banatuko ditugu.

### Egoerak planteatu

Talde bakoitzari “Printze Txikia” antzezlanean azaltzen den munduetako bat planteatuko zaio.

6 egoerak (*2.eranskina*):

- Erregea; autoritatea
- Harroputza; harropuzkeria eta berekoikeria
- Mozkorra; borondate falta
- Enpresaria; zekenkeria eta diruzalekeria
- Farolaria; eginbeharrekoen betetzea
- Geografoa; azkartasuna eta inteligentzia

### Eztabaida

Taldeka, egoera aztertu eta taldekideen arteko eztabaida egingo da. Horretarako, puntu batzuk izan ditzakete lagungarri.

### Aurkezpena

Talde bakoitzak gainontzeko ikaskideei azalduko die egokitu zaien mundua, baina modu grafikoan; irudiz, antzeztuz, musikaz...

### 3. SUGEAK JANDAKO ELEFANTEA

#### Txapela / Sugeak jandako elefantea

“Printze Txikia” ipuinean azaltzen den irudi adierazgarrienetakoa da txapela, eta horrekin egiten den jolasak adierazten du umeei eta helduei duten ikusteko modu ezberdina. Jolas hori aztertuko dugu:

**TXAPELA = SUGEAK JANDAKO ELEFANTEA**

*(3.eranskina)*

#### Gure sorkuntza

Jolas hori aztertu ondoren, guk ere gurea sortuko dugu. Ikasle bakoitzak irudi bat sortuko du eta irudi hori helduei zelan ikusiko duten ere irudikatuko du: umeen ikuspegitik ikusitako irudia alde batetik, eta helduen ikuspegitik ikusitakoa, bestetik. *(3.eranskina)*

Ondoren, bakoitzak bere irudia aurkeztuko du, eta denon artean komentatuko dugu; nondik hasi du bakoitzak irudi horren sorkuntza? Zer ikusten dugu bakoitzak?

Irudi anitzak eta bereziak lortuko ditugu guztion artean.

## 4. HELDU / UME MUNDUAK

### Ideia zaparrada

Arbela bitan banatuko dugu; ezkerreko aldea helduen munduari eskainiko diogu, eta eskumako aldea umeen munduari. Denon artean, mundu batekin eta bestearekin lotutako hitzak jarriko ditugu; burura etortzen zaigun dena botako dugu eta mundu bakoitzean kokatuko dugu.

### Horma-irudiak

Arbelean jarritako hitzekin lotutako bi horma-irudi egingo ditugu denon artean; helduen mundua islatzen duen horma-irudi bat, eta umeen mundua islatzen duen beste bat. Horma-irudien bitartez, modu sinplean adieraziko dugu zelan ikusten dugun mundu bakoitza.

### Eztabaida

Ikasgela bitan banatuko dugu; erdia alde batean, eta beste erdia beste aldean. Talde bat helduen munduaren defendatzaile izendatuko dugu, eta beste taldea umeen munduaren defendatzaile. Ondoren, eztabaida egingo da alde eta kontrako argumentuak landuz. Amaieran, ondorioak aterako ditugu.

## 5. ADISKIDETASUNA ETA MAITASUNA

### Azeria eta arrosa

“Printze Txikia” ipuinean, azeriaren pertsonaiak eta arrosak adierazi nahi digutena aztertuko dugu. Denon artean komentatuko dugu iruditzen zaiguna.

### Esaldi esanguratsuak

Horrekin lotuta, ipuinean azaltzen diren esaldi esanguratsuenetako batzuk aztertuko ditugu (*4.eranskina*):

- “Zu oraindik ez zara niretzako beste milaka umeren artean beste ume bat gehiago baino eta ez zaitut behar. Zuk ere ez nauzu ni behar, ni ez naiz zuretzako beste milaka azeriren artean beste azeri bat gehiago baino. Baina hezten banauzu, orduan batak bestearen beharra izango dugu. Zu niretzako bakarra izango zara munduan eta ni zuretzako ere.”
- “Tristeia da lagun bat ahaztea. Askok ez dute inoiz lagun bat izan.”
- “Ezinbestekoa begietara ikusezina da.”
- ...

### Zer da adiskidetasuna?

Adiskidetasunaren inguruan hitz egingo dugu:

- Adierazi zuretzat adiskidetasuna zer den esaldi baten bidez.
- Zeintzuk dira lagun batek izan behar dituen ezaugarriak?
- Zer gertatu behar da bi pertsona lagun bihurtzeko?
- Zer eskatu diezaiokegu lagun bati? Zer ez? Zergatik?
- Lagunik onena badugu, zergatik da bera?
- Zer gertatzen da bi pertsonen arteko adiskidetasuna bukatzen denean? Zergatik gertatu daiteke?




## 6. IPUINAREKIN JOLASEAN

### **“Printze Txikia” bukaera**

“Printze Txikia” ipuinaren bukaera aztertuko dugu berriro eta ikusiko dugunez, amaieran ez dakigu printzea hil egin zen, desagertu egin zen, edo bere planetara itzuli ote zen.

### **Guk emango diogu bukaera**

Hori ikusita, bakoitzak bere amaiera asmatuko dio ipuinari.



# BESTELAKO PROPOSAMENAK

Antzerkia

Istorioaren antzerkia egitea

Jolasak

-Memoria jolasa




-Dominoa



# 1. ERANSKINA:

## MARRAZKIA



# 1. ERANSKINA:

## HIZKI-ZOPA

Aurkitu hurrengo hizki-zopan "Printze Txikia" ipuinean azaltzen diren pertsonaietako batzuk (7 pertsonaia daude):

O	P	A	U	O	X	U	W	T	U	P	I	Q	M	S
A	I	R	E	Z	A	P	K	I	W	N	Ñ	S	G	G
J	S	V	W	X	U	O	E	G	T	J	Y	T	I	V
V	A	Ñ	W	M	P	R	M	Ñ	L	I	B	D	A	N
P	F	E	P	L	P	Ñ	N	X	S	E	P	B	E	G
M	R	P	Ñ	V	Z	C	S	E	I	Z	B	Y	G	W
Z	A	I	L	D	G	J	L	T	O	F	F	N	E	V
L	I	Z	N	X	C	A	M	O	J	Z	A	J	R	Q
X	A	Z	W	T	H	O	B	J	R	R	R	O	R	K
N	G	G	D	T	Z	Z	Q	Y	L	F	O	K	E	Q
X	F	A	J	K	O	E	M	R	E	Z	L	O	I	E
T	H	L	O	G	K	D	A	T	U	U	A	Z	S	X
S	Y	R	P	N	K	X	Q	J	Q	R	R	S	N	V
Y	R	A	O	F	A	R	G	O	E	G	I	U	E	K
A	A	Z	T	U	P	O	R	R	A	H	A	O	J	Ñ

**AZERIA // PRINTZEA // FAROLARIA // ERREGEA //  
GEOGRAFOA // MOZKORRA // HARROPUTZA**

# 1. ERANSKINA:

## EGIA/ GEZURRA

Honako esaldi hauek, egia ala gezurra dira?

<b>ESALDIAK:</b>	<b>E</b>	<b>G</b>
Printze Txikia LURRA planetakoa da.		
B612 planetan, milaka arrosa daude.		
Mozkorrak edaten du, edateak lotsa ematen diola ahazteko.		
Erregea bizi den planeta oso handia da.		
Basarmotuan, printze txikiak labexomorro batekin egiten du topo.		
Geografoa ez da esploratzailea.		
Enpresariak dirua zenbatzen du.		
Printzea, bere arrosa bakarra ez dela konturatzean, negarrez hasten da.		
Printze Txikiak ez du azeria hezten.		

# 1. ERANSKINA:

## GALDERAK

Erantzun honako galdera hauei:

1-; Zelan sentitzen da Printze Txikia gainontzeko arrosak ikusterakoan? Zergatik?

2-; Zer dira baobab-ak?

3-; Nor bizi da 6. planetan?

4-; Noren bila dabil Printze Txikia Lurra planetan?

5-; Zer oparitzen dio Printze Txikiak pilotuari bukaeran?

## 2. ERANSKINA:

### ROLE PLAYING-A




**Erregea** autoritatea da. Planeta hau bisitatzeak printzeari erakusten dio inork ez duela besteengan inolako autoritaterik, ez daukagula zertan egin besteek esaten digutena, zerbait egin edo ez egitearen azkenengo erabakia norberak duela. Norbaiten autoritateak iraungo du besteek men egiten dioten bitartean.



**Harroputzak** pertsonaren harropuzkeria eta berekoikeria adierazten ditu, baita besteen mirespena ere. Itxurak ez du ezertarako balio zure planetan bakarrik bizi bazara. Harropuzkeria denok daukagun akats bat da, beti nahi dugu gehiago izan eta gehiago garela sentitu, baina, zertarako?



**Mozkorrak** borondate falta adierazten du. Edan egiten du, edateak lotsa ematen diola ahazteko. Arazo bat konpontzen saiatzen ez bagara, honek irteera gabeko kale batera eraman gaitzake.




**Farolariak** bere eginbeharra betetzen du; hau da, farola piztu gaua hasten denean; eta, amatatu egunak argi egiten duenean. Printzipearen errespetua lortzen du bere betebeharra behar den moduan betetzen duelako. Baina bere zeregin horrek egoera absurdo batera eramango du: egunak eta gauak minutu bakarra irauten dutenez, farola

piztu eta amatatu baino ez du egingo egun osoan. Ez dauka astirik beste ezer egiteko. Pertsonaia heldu honek erakusten digu eginbeharrek batzuetan gure denbora osoa jaten dutela, eta ez digutela ezertarako denbora uzten.



**Enpresariak** zekenkeria eta diruzalekeria adierazten ditu. Pertsonaia honek beti dauka zereginen bat, nahi dituen izarrak zenbatzen dabil beti, beste izar batzuk erosteko, horien izenak jakin gabe. Ez dauka denborarik ezer egiteko, ezta inorekin egoteko ere, bere lanaren gatibu

da, eta ezin da bizi, ezin du bizitzaz gozatu.



**Geografoa** pertsonaia azkarra, inteligentea eta ikasia da. Beti dago bere gelan, mapak egiten, baina ez du inoiz bere mahaia uzten beste lurralde batzuk ezagutzeko. Gauza iraunkorrak interesatzen zaizkio, mendiak edo sumendiak, adibidez; loreak ez, hil egiten direlako. Nahiz eta kontzeptu asko



ezagutzen dituen, inoiz ere ez ditu esperimentatu, inoiz ez baita bere gelatxotik atera.




### 3. ERANSKINA:

IRUDIAK

SUGEAK JANDAKO ELEFANTEA // TXAPELA:





### 3. ERANSKINA:

## GURE SORKUNTZA

Gure ikuspegitik ikusten den irudia:

Helduen ikuspegitik ikusten den irudia:

## 4. ERANSKINA:

### ESALDIAK

“Zu oraindik ez zara niretzako beste milaka umeren artean beste ume bat gehiago baino, eta ez zaitut behar. Zuk ere ez nauzu ni behar, ni ez naiz zuretzako beste milaka azeriren artean beste azeri bat gehiago baino. Baina hezten banauzu, orduan batak bestearen beharra izango dugu. Zu niretzako bakarra izango zara munduan eta ni zuretzako ere.”

“Triste da lagun bat ahaztea.  
Askok ez dute inoiz lagun bat izan.”

“Bihotzarekin bakarrik ikusten da ondo; ezinbestekoa begietara ikusezina da.”

“Bakoitzari egin dezakeen horretaraino bakarrik eskatu behar zaio.”

“Pertsona bakoitzarekin igarotzen ditugun denbora zatiak.”

“Kantitatea ez da garrantzitsuena, lagun batekin igarotzen dugun denboraren kalitatea da garrantzitsuena.”

“Zure arrosarekin igarotako denborak egin zuen arrosa hori hain garrantzitsua.”

“Beste ehun mila azeri bezalako besteirik ez zen azeri hori. Baina nik nire laguna egin nuen eta orain niretzako bakarra da munduan.”